



oularretik
mintzora



- Egitasmo berri hau kanpaina **sistematizatu** bat izateko bokazioz jaio da.
- Haur txikien guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago. Bere helburu nagusia da **0-6 adin tarteko haurren** irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta haien hezitzaileekin.
- **Etxean, eskolan eta liburutegian**, giro irakurle bat sortzeko bideak jorratu eta modu natural batean irakurtzeko, kontatzeko eta entzuteko ohitura sustatu.



- Egitasmo hau **erabat berria da Euskal Herrian**. AEBetan, Britainia Handian, Italian, Suedian eta Katalunian egindako antzeko egitasmoen ildo berean dago.
- Tolosako Haur Liburutegian burutu du Galtzagorrik lehenengoz: 2007ko abenduan hasita 2008ko apirila arte.
- Ekimen guzti hauek **haurren osasuna kontzeptu orokor eta oso gisa** hartzen dute kontuan. Eta honen baitan, "irakurtzen ematea" jaten ematea bezain garrantzitsua dela aldarrikatzen da.



- **Hiru egoitza** ditu kanpaina honek, hiruetarako formazio aukerak eta material sailkatua diseinatu ditugu:
- **Etxean:** gurasoekin eta haurren zaintzaileekin: gomendio zerrenda bat, bibliografia egoki bat, ikastaroak liburutegian: nola irakurri, erakutsi, kontatu... eta maileguan eramateko liburuz beteriko maletak.
- **Eskoletan:** bibliografia egokia, gomendio zerrenda bat, ikastaroak: haur literatura nola sistematizatu eguneroko curriculumean.
- **Liburutegian:** formazio saioak, bibliografia egokia, maileguan etxera eta eskoletara eraman daitezkeen liburu maletak.



KANPAINAREN DINAMIKA

- **Liburutegiek** daramate egitasmoaren hedapenaren ardura. Liburutegian **txoko berezi** bat antolatuko da haur txikien bibliografia, kartelak, gomendiozko foiletoak eta bestelako informazio guziak denen eskura ipintzeko.
- Liburutegian ospatzen dira ikastaroak, banatzen dira maileguan eramaten diren mailetak; han ospatuko dira irakurketa klubaren saioak eta batez ere, jasoko dira geroan **behaketa sistematizatu** bat egiteko datuak.



KANPAINAREN DINAMIKA

- **Liburutegiek** daramate egitasmoaren hedapenaren ardura. Liburutegian **txoko berezi** bat antolatuko da haur txikien bibliografia, kartelak, gomendiozko foiletoak eta bestelako informazio guziak denen eskura ipintzeko.
- Liburutegian ospatzen dira ikastaroak, banatzen dira maileguan eramaten diren mailetak; han ospatuko dira irakurketa klubaren saioak eta batez ere, jasoko dira geroan **behaketa sistematizatu** bat egiteko datuak.



- **Eskolan, programazio sistemako** bat ezarriko da haur literatura programazio sisteman sartzeko. Saio sistemako batzuk garatuko dira geletan eta eskoletan, ikastaroetan definitzen direnak.
- Liburutegiarekin lotura bat sortuko da "Eskoletako motxilen" bidez. **Motxila txiki bat** diseinatu dugu astean behin gela bakoitzeko haur batek liburutegian liburu bat hartzeko. Hau etxera eraman eta hurrengo egunean eskolara eramango du; eskolan astebete eukiko dute liburua begiratu, irakurri eta kontatzeko.



EGITASMOAREN DINAMIKA

- **Web gune berri** bat sortuko da datozen hilabeteetan, informazioz beteta. Artikulu interesgarriak, ekimen gomendagarriak, ikastaroei buruzko informazioa, materialak, helbide interesgarriak. Honekin batera **blog** bat jendearen iradokizunak jasotzeko.
- Eten gabeko **jarraipen** bat egingo zaio egitasmoari, kantitatezko datuak zein kalitatezkoak islatzen saiatuko gara, horretarako aukeratu diren bost herrietan.

EGITASMOAREN HEDAPENA



- **Bost herri** aukeratu dira kanpaina hau martxan jartzeko: Tolosa, Iurreta, Ermua, Oñati eta Amurrio. Herri hauetan hitzarmen bat lortu da Liburutegia, Eskolak eta Udalen artekoak. Bertan hitzaldiak, ikastaroak, material banaketa eta jarraipen sistematikoak egingo dira.
- **Tolosan** hasi zen kanpaina iazko abenduan eta apirila bitartean; martxan jarri genuen bertan. Azaroan emango diogu herri hartan jarraipena. Iurretan urrian abiatuko da, Amurrion urtarilean eta Oñatin otsailean.
- 2009ko otsailetik aurrera zabaldu egingo da egitasmoa parte hartu nahi duenarentzat.



EGITASMOAREN DINAMIKA

- **CD-liburua:** Haurrek kantatzeko, kontatzeko, jolasteko eta esateko eredu garbiak eskaintzen dira liburu disko honetan, guraso eta irakasleek joko horiek ikasi eta haurrekin ahots bizioan erabiltzeko.
- **Foiletoak:** gomendioekin, bibliografiarekin...
- **Liburu maletak:** Galtzagorrik hautatutako liburuekin, liburutegian hartu eta maileguan eramateko.



Bularretik mintzora